



**2022KO MAIATZAREN 9KO  
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita biko maiatzaren bederatzian, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratu-tako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxe-mai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaraturakoen onespenera aurkeztu da 2022ko apirilaren 25ean egindako bilkuraren akta, idatzita dagoen moduan onartu delarik.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira. Aztertu ondoren 2022ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 22 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HIRUROGEITA HAMAHIRU MILA HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA HEMEZORTZI euro ETA BERROGEITA HAMAR zentimo (73.378,50 €)takoa onartzea erabaki da.

**III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-**

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

**Etxeko Laguntza Zerbitzua.-**

- 21-11-01 zk.dun esped.: apirilaren 12tik aurrera zerbitzuan baja ematea, heriotzagatik.
- 22-11-05 zk.dun esped.: zerbitzuan alta ematea maiatzaren 22tik aurrera, astean 2 ordu etxeko garbiketan laguntzeko. Onuradunen ekarpena zerbitzu kostuaren %35 izango da.

**Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-**

- 13-01-11 zk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 € ematea, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 21-01-004 zk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 € ematea, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

- 22-01-008 zk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 € eta alokairu gastuetarako hilean 250€ ematea, apiriletik abuztura. Ematen zaiona eskutakoaren %100 da.

#### IV.- EUSKARAKO DIRULAGUNTZAK .-

Euskara batzordearen proposamenaren aurrean Tokiko Gobernu Batzarrak honako dirulaguntza hau onartu du:

##### Gerriko Kultur Elkartea.-

Gerriko Ikerlan Bekaren 2022ko urtarriletik ekainera bitarteko gastuei aurre egiteko, 2.500 € ematea.

Dirulaguntza hau aurrekontuaren 1 481.04.334.00 partidatik ordainduko da.

#### V.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kultura batzordearen proposamenaren aurrean Tokiko Gobernu Batzarrak honako dirulaguntza hauek onartu ditu:

##### Oin Arin dantza taldea.-

XL. Dantza suelto txapelketa antolatzeagatik 2.185,36 € ematea.

##### Lazkaoko Musika Banda.-

Maiatzaren 1ean Diana eta Kontzertua antolatzeagatik 1.500 € ematea.

Bi dirulaguntza hauek aurrekontuaren 1 480.03.338.00 partidatik ordainduko dira.

#### VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bost eta erdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



LAZKAOKO  
UDALA

